



ANAI JOSE LUIS ORTIZ SAEZ
Bilbo (1950.06.30) – Irun (2021.09.02)

Hitzaren liturgiako testuak:
Kol 1, 15-20 / Sal 99,2.3.4.5 / Lk 5,33-39

*“Kristo da gorputzaren burua, Elizarena alegia.
Bera da hasiera, hildakoen artetik lehen piztua,
eta gauza guztietan lehentasuna dagokio;
Jainkoak nahi izan baitu bere izaeraren betea Kristorengan egotea,
eta honen bitartez gauza guztiak berekin adiskidetzea”.*
(Kol 1, 18-20)

Heriotzak ezagutzen eta maite ditugunengana ere iritsi behar duela oso jakina izan arren, eta gaixotasunak berak ere iragartzen badigu ere, gaur goibel eta harrituta gaude hemen. Triste, joan den gure Anaia estimatzen eta maite genuelako, eta harrituta, jakin arren, beti iruditzen zaigulako ezin dela izan, ezin dela mundu honetako bizitza amaitu.

Harremanaren intentsitateagatik, maitasunagatik eta denbora partekatuagatik, Jose Luis gure artetik joan izanak hutsunea sortzen digu. Ustekabeko mina izan da, espero baitzen bizia ematen eta partekatzen jarraituko zuela, bere gaitasunekin, eskuragarritasunarekin eta eskuzabaltasunez egindako misio batean. Baina horrelakoa da errealitatea: eta gaur agur esaten diogu Jose Luisi, behin betiko unea iritsi baitzaio. Jainkoarengan dago jadanik, bizi betearen atea gurutzatu ondoren.

Pablok, aldarrikatutako ereserki liturgikoak, gure fedearen erdigunea gogorarazi digu: Kristo kreazioko lehena da, eta, Jaun berpiztua den aldetik, gizateria osoaren buru, bizitza eta hazkunde ororen iturri. Jauna eta guztiaren printzipio berria den Berarengan, berriro sortuak izan gara gu eta alienazio orotatik zaharberituak. Eta orain ospatzen dugu hau guztia gure Anai Jose Luisengan errealitate osoa eta behin betikoa bihurtu dela, Jesusekin egin duen bidea egin ondoren, jada sorkuntza berriaz gozatzen ari baita.

Entzun dugu nola Jesusi aurpegiatzen dioten apostoluek ez dutela baraualdiaren legea gordetzen. Eta haren erantzuna ere entzun dugu: nola egingo dute baraua gonbidatuek, senargaia beraiekin dagoen bitartean? Bera da senargaia, eta Erreinua ezkontza-bazkariaren eta opil berrien metaforetan adierazten da. Jesusen etorrerarekin dena berri bilakatzen da, eta gure bizitzan berrikuntza hori onartzera eta pozez betetzera deituak gara, iragan eta esklabotza guztietatik aske, geure buruarekin, besteekin eta kreazio osoarekin adiskidetuta.

Jesusi jarraitzea, hura den bezala onartzea da, oso-osorik, jantzi zaharreko oihal berridun adabakirik gabe. Jesusek bezala pentsatuz, errukia dela lehena; Jesusek bezala poztuz, maite gaituen Jainkoarengan; Jesusek bezala maitatuz, barkamenari mugarik jarri gabe; Jesusek bezala sufrituz, bizia besteei emanaz, hil arte.

Jarraipen honetan eraiki da Jose Luisen bizitza, eta horregatik egiten dugu gaur hari buruzko esker oneko oroitzapena, eta barnean era guztietako sentimenduak metatzen zaizkigu bera gogora ekartzean: gozamen- eta betetasun-uneak, egoera mingarriak, elkarki egindako zauriak, samin

partekatuak, erdizka geratu diren proiektuak... Azken batean, bizitza emankor eta partekatuak dakarren guztia, Bilbon hasi zena, 1950eko ekainaren 30ean, Meltxor eta Lukreziaren maitasunaren ondorioz.

Jose Luis, 11 urte zituela, San Inazio auzotik, Deustuko Anaien ikastetxetik, San Asensioko anaigaitegira joan zen. Bere salletar ibilbidea, batez ere Bizkaira mugatu izan da: Sestao, Ibarrekolanda, Postulantadu, Santiago Apostolu edo Madariagako elkarteetan; nahiz eta, denboraldi laburragotan Andoain, Iruñea eta Mendiolabetik (Donostia) igaro izan.

Hezitzaile sentibera eta arduratsua (adibidez, irakurketa eraginkorrarekin inplikatu), ia amaierara arte zerbitzuan jardun zen, Deustun eskola-laguntzak emanez, Artizarren edo Godly Playn "atezain" gisa kolaboratuz; elkarteko zuzendari arretatsu izanez, beti elkarren arteko armoniagatik kezkatua, bere bizitzako urte asko eman zituen etxeko ekonomia eta besteena zaintzen, kezkaturik, adibidez, txokoa beti baldintza onenetan edukitzen, edo gertutasunez bere anaia zaintzen... Gogora dezakegu Jose Luis erosketak egin ondoren supermerkatutik poltsekin etxera etortzen. Jainkoa errukia dela oihukatzeke modu bat izan zen.

Uztailaren 26an ekarri zuten La Salle-Eneara, egoera delikatuana, eta hemen oso balioetsi eta eskertu zituen zainketaz eta bakeaz gozatu zuen. Jose Luisen jarreratik, azken hilabeteetan antzemana zuen amaieraren aurrean, oinazeari ausardiaz aurre egin diezaiokegula ikasi dugu, horrela bizitzaren oparia onartuz. Mila esker Madariagako elkartetik edota La Salle-Eneatik beragandik hurbil egonik, haren oinazea partekatu eta laguntza eskaini diozuen guztioi.

Jose Luisek erakusten digu, oso zaila iruditzen zaigun arren, bere egoera gogorrean perla baliotsuak daudela. Sufrimendua bizitzaren baitan ulertzen dutenek bakarrik uler dezakete bizitzaren nondik norakoa, eta onartuak eta barkatuak izatearen kontzientziatik, besteoi lagundu diezagukete. Jose Luisek bere testigutzarekin adierazten digu munduak eta geuk, oinazearen, kemenaren eta indarraren beharrean garela. Eskerrik asko, Jose Luis, zure historiak, bizitzaz eta heriotzaz, pozez eta sufrimenduz, eta gaixotasunez josita, itxaropena ematen digulako. Mila esker, Jose Luis, bizitza halako moldez bizi izan duzulako, non bizitza ulertezina izango bailitzateke Jainkoa Maitasun gisa ulertuko ez balitz.

Jose Luisek bizitza osoan Jesusi jarraitu nahi izan zion. Jesus honek bere burua "senargai" gisa definitzen badu, festaren iturri gisa, gu, bereziki gaur, partekatzearen poza bizitzera deituak gaude, gure baitan zaharra denari uko eginez eta Berri Onaren deiari leial bizitzeko apustua eginez.

Eukaristia honetan Jesu Kristo presente egiten da gurekin hasiera berri bat burutzeko, Harengan berriz sortuz, gure Anaiarekin egin duen bezala. Jakin dezagula ezagutzen duguna atzean utzi beharraren oinazea onartzen, eta, bizitzarekin eta anai-arrebekin adiskidetuta, ebanjelioaren erronkari ireki gaitzela.

Eta Jaunaren mahaian parte hartzean, itun berriko ogia eta ardoa partekatuz, poztu gaitzela Jesus senargaia gure artean edukitzeagatik, eta topa egin dezagula Jose Luis gure Anaiagatik, jada harekin gozaten ari baita Erreinuko txokoan.

Bihotzez, eskerrrik asko, Jose Luis, eta har ezazu atseden eta gozatu betikotasun festan.

Egun haundira arte!

ZATOZTE FESTARA

Otordu bat prestatu duzu gaur,
zure itunaren denda zabalean,
zurea eta gurea den lur honetan jaso,
zure presentziaz harritu ez gaitezen.
Zure semea da ezkontzen dena,
abagune aparta
zure eskuzabala eta onginahia
guri agerrarazteko.

Sarrera jada apainduta dago,
lorategiak zoragarri,
farolek eta antortzek
bideak, bazterrak eta plazak
argitzen dituzte.
Gelak txukun-txukun jarriak
eta otordu-jangela prestaturik
festarako behar den guztiarekin,
izan ere abagunea aparta da.

Otordurako mahaia prest
ezagutzen diren jaki gozoenekin
eta erretserba ardo apartarekin
zalantzan daudenak ere pozteko,
zure mahasti maiteenetik ekarria.
Dena ugari,
zure etxetik pasatzen denarentzat
gauzak soberan eta ez eskas izatea
gustatzen baitzaizu

Morroiak irten dira
zure lagunak gonbidatzera,
asko baitira eta oso ezberdinak
eta munduan zehar sakabanaturik daude.
Zatozte festara! Zatozte festara!,
entzuten da herri eta etxeetan,
eta oihartzuna behin eta berriz
eta bihotz guztietara iristen da.

Iluntzen ari du, eta zure denda hutsik dago.
Zure lagunak, oso okupatuak,
beraien gauzetan eta lanetan,
muzin egin diote zure gonbiteari
edonolako deia bailitzan.
Trantze txarra pasarazten dizute
haien arrazoiek, aitzakiek eta desenkusek
beren kontzientzia lasaitzeko bailiran.

Hala ere festa, gaur, egin egingo da
zinez hala nahi baituzu.
Zure eskuzabal eta aberastasuna
ezin buka daiteke zabortegian.
Zure gonbidatuak kaleetatik, plazetatik,
ahaztuak diren bazterretatik
eta historiaren toki ilunetatik
etorriko dira.

Errenak,itsuak eta gorrak izango dira,
goseak, pobreak eta giltzapetuak,
hiritarrak eta atzerritarrak,
paperik gabeko etorkinak,
gizon eta emakumeak, zaharrak eta haurrak
arraza, kolore eta ofizio guztietakoak,
zure mezulariei entzun
eta harri eta zur gelditu direnak.

Ezertara gonbidatuak ez zaretenok...
Zatozte festara!
Bakarrik eta etorkizunik gabe zaudetenok...
Zatozte festara!
Gose zaudetenok eta lanik gabe...
Zatozte festara!
Mespretxatu eta umiliatu guztiok...
Zatozte festara!
Izenik eta historiarik gabekook...
Zatozte festara!
Giza errekurtsu besterik ez zaretenok...
Zatozte festara!
Barrea eta miseria pairatzen duzuenok...
Zatozte festara!
Oraingo eta betiko koitaduok...
Zatozte festara!

Zure festara goaz, Jauna!

Florentino Ulibarri